

## HARRITIK HERRIRA. GABRIEL ARESTIREN PAPERAK EUSKAL KULTURA ETA GIZARTEAN, 1954-2014

**Tesiaren egilea:** Asier Amezaga Etxebarria

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

**Saila:** Soziologia 2

**Tesi-zuzendaria:** Iñaki Martínez de Albeniz Ezpeleta eta Elena Casado Aparicio

**Tesiaren laburpena:**

Gabriel Aresti Seguiolaren (1933-1975) obrak eta posizio-hartzeek iskanbila ederrak sortu zituzten bere garaian. Hala ere, egun bere ekarpenaren balioaren gaineko adostasuna dagoela esan daiteke; horren lekuko dira izena hari zor dioten kale eta erakundeak, edo urtero eskaintzen zaizkion omenaldi publikoak. Ikerketa honek Arestik egun euskal kulturaren eta gizartean jokatzeko duen papera aztertzen du; horretarako, haren obraren eta euskal kulturako esparruaren testuingurutik abiatuta, espazio eta denbora ezberdinetara egokitu duten bitartekariei erreparatu zaie: interpretazio-gune sinbolikoak, agerpen publikoetan duen objektu-izaera eta haren poemen adierazleak errepikak.

Arestiren obrak euskal kulturaren norgehiagoka zabalagoan parte hartu zuen eta suertatutako transformazioaren eragileetako bat izan zen. *Hausturaren belaunaldiaren* posizio-hartze eta disposizio estetikoekin bat egiten bazuen ere, poeta madarikatuaren papera jokatu zuen. Hala ere, errekonozimendu zabala jasoko zuen, bereziki hura hil eta euskal literatura esparru autonomoa osatu zen neurrian, bere posizio-hartze polemikoak azertu bihurtuz.

Hortik abiatuta, poetaren memoria zertu eta moldatzen dituzten *interpretazio-gune sinbolikoak* aztertzen dira. Literatura eta hizkuntza-modernitatea abiapuntu, Aresti dominantea egingo zen euskara-ereduaren alde lerratuko zen. Baina horretaz gain, bestelako giroetan murgilduta, La Concordia tertulian espainiar esparruetan jokatzeko zuten antifrankisten mahaikide, bi munduon arteko zubi-izaera aitortuko zaio. Arantzazuko zerua eta Bilboko infernua ere bi gune gisa ageri dira, poetika eta gertakizunen bidegurutzean. Gune horiek, Arestiren presentzia bermatzeaz gain, forma ematen diete Arestiren kontakizun biografikoari eta bere obren gainean egiten diren interpretazio nagusiei.

Omenaldiek ere bermatu dute poetaren presentzia publikoa; horietan objektu-izaera hartzen du, hainbat instituziori izena eman eta eragile ezberdinen topagune suertatu den neurrian. Totemaren antzera, gurtu beharreko objektua izan ohi da, horretarako dagokion liturgiari jarraituz: batzuek bere testua probokatuko dute, honen

izaera inaugurala indartuz; besteek testua inbokatuko dute, honen gaurkotasuna aldarrikatuz. Horretaz gain, branding-erabilerak ere izango ditu, hainbat instituzioren izendatzaile eta, batez ere, Bilboko Udalak eskaintzen dizkion Sarian eta Egun Instituzionalean.

Haren poemetako adierazleak maiz dira errep(l)ikatuak, hizketa-ekintzetako bakoitzean aldaera ezberdinekin egokituz. Adierazle horiek haragitutako afektuak katalizatzen dituzten ritornelo gisa aztertu dira. Horrela, *Nire aitaren etxea* poema ezagunaren ritorneloak *topikan* eragingo luke, gorputzak lurraldearekin osatzen duen harreman ezberdinak katalizatzen dituen neurrian. Hainbat poematan eta poema-liburuen izenburutan ageri den *harriak*, ostera, *fonika* mobilizatuko lukete, herriarekiko duen gertutasuna dela-eta. Bukatzeko, *Egun da Santi Mamina* poeman, hainbatetan musikatua izan den neurrian, *melodikak* egingo luke bitartekaritza.

Ikerketa honek Arestiren obrak zabaltzen duen aniztasunean ipini du arreta, baina aldi berean azaldu nahi izan du haren agerpen-moduak euskal kultura eta gizartearen bilakaeran zenbateraino txertatuta dauden.